

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**OSASUN SAILA**

Osasun Sailburuordetza  
Osasun Plangintza eta  
Antolamenduko Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE SANIDAD**

Viceconsejería de Sanidad  
Dirección de Planificación y  
Ordenación Sanitaria

# OSPITALEKO ALTEN ERREGISTROKO TXOSTENA

## **EAE 2007**

Erregistro eta Osasun Informaziorako Zerbitzua  
**Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza**

OSASUN SAILA

# SARRERA ETA METODOLOGIA

---

Jarraian aurkezten den txostena 2007. urteko Ospitaleko Alten Erregistroari (OAE) dagokio, eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ospitaleetan artatutako gaixotasunei buruzko informazioa eskaintzen du. Datuok, urte bereko azaroko 303/1992 dekretuak sortutako<sup>1</sup> Gutxieneko Oinarrizko Datu Multzotik (GODM) hartu dira.

EAEko GODM delakoa datu-base kliniko-administratibo bat da, zentro sanitario guztien, publikoen zein pribatuen, ospitaleko gertakarien altaren informazioa homogeneoki biltzen duena. Aipatutako zentroen artean ez dira atentzio psikiatrikoko zentroak sartzen.

## *Definizio interesgarriak:*

**Ospitaleko alta:** aldez aurretik ingresatuta egonik, ospitalean esleituta zeukan ohea uzten duen pazientea. Paziente batek urtean alta ezberdinak sor ditzake.

**Egonaldi gabeko alta:** egun bat baino gutxiagoko egonaldiarekin ospitalean artatu eta bere atentzioak alta-txosten bat sortzen duen pazientea.

**Pertsona** edo pazientea: berau kalkulatzeko hauxe izan da kontuan hartu dena: ospitale bakoitzean ez egotea historia klinikoaren zenbaki bera, jaiotegun bera eta sexu bera.

**Diagnostiko nagusia:** bidezko azterketa egin ondoren eta aukerako irizpidearen arabera, pazientea ospitale batean ingresatzeko arrazoi nagusitzat hartzen den prozesu patologikoa.

**Prozedura kirurgikoa eta obstetrikoa:** operazio-gela edota erditze-gela erabili diren prozedura guztiak.

Diagnostikoak eta prozedurak, "Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena, 9. berrikuspena, Aldaketa Klinikoa" (CIE-9MC)<sup>2</sup> delakoaren arabera kodetu dira.

**Egonaldia:** honako aldagai hauen artean dagoen aldea: altako data eta onarpen-data, egunetan neurtua.

Datu horien analisia deskriptiboa da eta diagnostiko eta prozedura nagusiei baino ez die erreferentzia egiten. Analisia ospitale publikoetan (akutuentzako ospitaleetan eta egonaldi ertaineko eta luzekoetan) eta pribatuetan egin da, sexua eta adina (15 urteko zazpi tartetan taldekatuta) kontuan hartuta.

100.000 biztanleko ospitalizazio-tasa gordina kalkulatu da eta alden kopurua zenbakitzailean jarri da. Tasa horiek kalkulatzeko izendatzailean erabili den biztanleria Euskal Estatistika Erakundea/EUSTAT delakoan agertzen den biztanleria izan da, proiektzio baten bitartez eginda<sup>3</sup>.

Gainera, egonaldi ertaina kalkulatu da, hau da, batez beste pazienteak ingratuta egon diren egunak, egonaldi-kopuruaren eta alden kopuruaren arteko zatidura eginez.

Datuen kalitatea, eremu guztietarako nahitaezkoa den **aldagaien betetze-mailaren** bitartez neurtu da. Aurten, honako aldagai hauetan Osakidetzako zentro guztien alta guztien informazioa lortu da: sexua, zentroren kodea, ospitaleratzearen erregistro-zenbakia, historia klinikoa, ekonomi araubidea, onarpen-data, onarpenaren inguruabarra, altako data, altaren inguruabarra, eta alta-zerbitzua. Ospitale bakoitzean bete ez diren aldagaiak 1. taulan deskribatzen dira.

Aldagairen bat bete gabe zituzten altak, ez dira sartu aldagai horri zegokion analisian.

Datuak aztertzean, lehenengo eta behin EAEn izandako alta guztien deskripzio bat egingo da; ondoren, zehatzago, egoiliar eta ez-egoiliarren altak aztertuko dira.

Azkenik, ospitale pribatuen datuak aztertu dira, diagnostiko-taldeak eta egonaldia kontuan hartuta. Datuen kalitateak hobera egin duen arren, zentro batzuetan sexua edo altan jasotako diagnostikoa bezalako aldagaiak falta dira. Horregatik, ospitale publikoetan egin

den bezala, aldagairen bat bete gabe zituzten altak, aldagai horri zegokion analisitik kanpo geratu dira.

# E MAITZAK

---

Hauxe izan zen, 2007. urtean zehar, EAEko ospitale publiko eta pribatuetan gertatutako alden kopurua: 306.070.

Osakidetzaren sare publikoko ospitaleko alden kopurua, guztira, 234.445ekoa izan da, aurreko urtekoa baino handiagoa. Alta horietatik 226.065 (% 96,4) akutuentzako ospitaletakoak izan dira eta 8.380 (% 3,6), egonaldi ertain eta luzeko ospitaletakoak. Ospitale bakoitza eta sexua kontuan hartua egindako deskripzioa 2. taulan ikus daiteke.

## ***Akutuentzako ospitale publikoak***

Akutuentzako ospitale publikoetan gertatutako aldetatik, 221.243 EAEn bizi diren pertsonenak izan dira eta 4.822 (% 2,2) ez-egoiliarrek eta atzerritarrek izan dira. Proportzio hori, halaber, beste urte batzuetakoaren antzekoa izan da.

3. taulan ikus daitezke ospitale horietara joan diren EAEko egoiliarrei buruzko daturik garrantzitsuenak. Pertsonako alden kopurua (1,3) aurreko urtekoaren parekoa da, eta oso antzekoa izan da gizonezkoetan eta emakumezkoetan (1,3 eta 1,2 hurrenez hurren). Batez besteko adina, dena dela, gizonezkoen kasuan (57,3 urte) emakumezkoen kasuan (54,6 urte) baino zertxobait altuagoa izan da. Hauxe da ospitalizazio-tasa gordina: 100.000 biztanleko 10.393,8, zertxobait altuagoa Araban eta baxuagoa Bizkaian. Emakumezkoen ospitalizazio-tasa gordinak, gainera, pixka bat altuagoak dira hiru lurraldeetan.

4. taulan, halaber, egoiliarren alden kopuruaren banaketa ageri da adin-taldea, egoitza duten lurralde historikoa eta sexua kontuan hartuta. Erreparatzen da gizonezkoen kasuan alden kopuru handiena 60 urtetik 74 urtera arteko taldean gertatzen dela; emakumezkoetan, berriz, bi gailur daude, bat 30 urtetik 34 urtera arteko adin-taldean,

eta bestea 75 urtetik 89 urtera artekoan. Hori hiru lurralde historikoetan gertatzen da.

5. taulan altak aurkezten dira alta ematerakoan diagnostiko-taldea, lurralde historikoa eta sexua kontuan hartuta. Gizonezkoen kasuan, Araban eta Gipuzkoan arnas aparatuko gaixotasunek lehenengo postua hartzen dute (% 15,2 eta % 14,8 hurrenez hurren), eta zirkulazio-aparatuko gaixotasunak dira Bizkaian lehenengo tokia hartzen dutenak (% 16,2). Oro har, EAEko gizonezkoetan zirkulazio-aparatuko gaixotasunek lehenengo postua hartzen dute (% 15,1), jarraian digestio-aparatuko gaixotasunak ageri dira bigarren postuan (% 14,4) eta arnas aparatuko gaixotasunak hirugarren (% 13,6). EAEko emakumezkoen kasuan eta hiru lurraldeetan eredia berdina da, lehenengo arrazoia haurdunaldi, erditze eta erditze ondoko taldeari dagokio (% 17,7 Araban, % 20,9 Gipuzkoan eta % 18,7 Bizkaian); jarraian, nerbio-sistemako eta zentzumen-organoetako gaixotasunak datoz (% 10,6 Araban, % 12,3 Gipuzkoan eta % 12,7 Bizkaian) eta hirugarren arrazoi gisa zirkulazio-sistemako gaixotasunak ageri dira (% 9,6 Araba, % 9,8 Gipuzkoa eta % 9,9 Bizkaia).

6. taulan sarrien gertatzen diren bost diagnostikoak aurkezten dira hiru digituz kodetuta, espezifikoagoa delako, adin-taldea eta sexua kontuan hartuta. 14 urtera arte, arrazoi nagusiak antzekoak dira bi sexuetan, amigdala eta adenoideen gaixotasun kronikoa sarrien gertatzen den diagnostikoa izanik (% 9). Baina 15 urtetik 44 urtera arteko emakumezkoetan, sarrien eman diren bost diagnostikoak haurdunaldi, erditze eta erditze ondoko taldearen barruan aurkitzen dira. Bestalde, katarata da 60 eta 89 urte artekoengan, sexu bietan, sarrien gertatzen den diagnostikoa, eta aldea proportzioan agertzen da, emakumezkoengan gizonezkoengan baino altuagoa baita beti.

Osakidetzako akutuentzako ospitaleetan atenditutako ez-egoiliarrei dagokienez, eta horien egoitza non dagoen aztertu ondoren, ikus daiteke kasuen % 91,4 Kantabria (% 33), Nafarroa (% 29,7) Burgos (% 22,2) eta Errioxatik datozela (% 6,5).

7. taulan ez-egoiliarren alden kopuruaren banaketa ageri da, adin-taldea eta sexua kontuan hartuta, eta ikus daiteke 30 urtetik 34 urtera eta 60tik 74 urtera arteko adin-taldeetan alden kopururik handiena biltzen dela. 8. taulan ez-egoiliarrentzako altak aurkezten

dira, alta ematerakoan diagnostiko-taldea eta sexua kontuan hartuta. EAEn bizi ez diren gizonezkoen kasuan, zirkulazio-aparatuko gaixotasunak dira, egoiliarren kasuan bezala, lehenengo postuan agertzen direnak (% 16,2); ondoren, lesioak eta pozoidurak datoz (% 13,9); eta hirugarren tokian digestio-aparatuko gaixotasunak (% 11,9). Emakumezkoetan lehenengo arrazoia haurdunaldi, erditze eta erditze ondoko taldeari dagokio (% 22), EAEn bizi direnekin gertatzen den bezala, ondoren zirkulazio-aparatuko gaixotasunak daude (% 9,6) eta hirugarren tumoreak (% 9,5).

### 1. *Egonaldirik gabeko altak:*

Eguneko ospitaleei dagozkien altak dira. Guztira, **43.201** alta erregistratu dira. Alta horiek 36.825 pertsoneri dagozkie: 42.462 egoiliar (% 98,3) eta 739 ez-egoiliar (% 1,7). Alta guztien % 43,9 emakumezkoak dira eta % 56,1 gizonezkoak. Alta horiek, Osakidetzako akutuentzako ospitaleetako alta guztien % 19,1 dira eta ospitale bakoitzean proportzio desberdinak adierazten dituzte, honako hauek direlarik maiztasun handiena izan dutenak: San Eloy (% 31,4) eta Bidasoako Eskualdeko Ospitalea (% 31,3). Maiztasun baxuenak, berriz, Txagorritxuko Ospitaleak (% 15,7) eta Donostia Ospitaleak (% 15,8) izan dute. Guztizkoa kontuan hartuta, alden kopururik handiena Gurutzetako Ospitaleak jakinarazi du (% 23,4) (9. taula).

EAEn bizi direnen artean sarrien eman diren hamabost diagnostikoei, sexu bietarako, egonaldirik egin ez duten alta guztien % 59 adierazten dute; eta lurralde historikoaren araberrako haien banaketa 10. taulan ikus daiteke. Katarata da sarrien eman den diagnostikoa (% 36,1), 74,2 urteko batez besteko adina dutenen artean.

11. taulan ikus daiteke EAEn bizi ez direnen artean, sexu bietarako, sarrien emandako hamabost diagnostikoei zeintzuk izan diren; eta horrek, ez-egoiliarrek egonaldirik egin gabe hartutako alta guztien % 50 adierazten du. Sarrien gertatu diren 15 diagnostiko horietatik, 10 bat datoz egoiliarren kasuan sarrien eman direnekin, maiztasun-ordena kontuan hartzen bada aldaketaren bat egon arren. Baina egoiliarrekin gertatzen den bezala, ez-egoiliarren artean sarrien gertatu den diagnostikoa katarata izan da (% 20,7), 74,8 urteko batez besteko adina dutenen artean.

2. *Zerotik gorakoa den egonaldia izan duten altak:*

12. taulan ikus daiteke Osakidetzako ospitale publikoek, zerotik gorako egonaldia izan duten **182.864** alta jakinarazi dituztela. Alta horiek 141.584 pertsonak egin dituzte (pertsonako 1,3 alta), eta 178.781 alta egoiliarrei dagozkie eta 4.083 (% 2,2) ez-egoiliarrei. Sexuaren arabera, % 51,1 emakumezkoak dira eta % 48,9 gizonezkoak.

Egoiliarren artean, onarpenaren inguruabarra urgentzia izan zen alten % 71n, emakumezkoen artean (% 73,2) gizonezkoengan baino zertxobait altuagoa (% 68,7); eta gehienak (% 87,6) haien ohiko bizilekura itzuli ziren alta jaso zuten momentuan. % 3,5 ospitalean hil egin zen.

Emakumezkoen kasuan, alta gehien jakinarazi duen zerbitzua toko-ginekologiakoa izan da (% 24,9); ondoren, barne-medikuntzako (% 10,6) eta traumatologia eta kirurgia ortopedikoko zerbitzua (% 10,3). Gizonezkoen kasuan, kirurgia orokorreko zerbitzuek eta barne-medikuntzakoak ospitaleratzeen % 25,3 sortu dute; eta ondoren, kardiologiako zerbitzua dator % 9,7ko tasarekin (13. taula).

EAEn bizi ziren gizonen artean, zerotik gorako egonaldia izan duten alten banaketa, adin-taldeak kontuan hartuta, dagoeneko 4. taulan aipatu den berdina da: gizonezkoen kasuan alten kopururik handiena 60 eta 74 urte artean batzen da, baina emakumezkoetan 30etik 34 urtera eta 75 urtetik 89 urtera arteko adin-taldeetan. Egonaldiari dagokionez, ohartu gara gizonezkoek emakumezkoek baino egonaldi luzeagoak egiten dituztela adin-talde guztietan, 75etik 89 urtera arteko adin-taldean izan ezik (8,8 egun gizonezkoen kasuan eta 9,2 egun emakumezkoen kasuan). Datu horiek berdinak dira bizilekua zein lurralde historikotan dagoen eta sexua kontuan hartzen badira, eta 14. taulan ikus daitezke.

Alta horiek diagnostiko-taldea, lurralde historikoa eta sexua kontuan hartuta aztertzen direnean (15. taula), ikus daiteke gizonezkoengan eta Araban lehenengo bi arrazoiak arnas aparatuko gaixotasunei eta digestio-aparatuko gaixotasunei (% 16,8 eta % 15,9 hurrenez hurren) dagozkienak direla, eta hirugarren zirkulazio-sistemako gaixotasunak (% 14,6) ageri direla. Bestalde, gizonezkoen kasuan Gipuzkoan eta Bizkaian lehen hiru arrazoiak berdinak dira, baina ordena ez da desberdina da, hala nola: zirkulazio-aparatuko gaixotasunak, arnas aparatukoak eta digestio-aparatukoak. Emakumezkoetan



lehenengo arrazoa, hiru lurraldeetan, haurdunaldi, erditze eta erditze ondoko taldeari dagokio; eta bigarren arrazoa digestio-aparatuko gaixotasunak dira Araban (% 11) eta zirkulazio-sistemakoak Gipuzkoan (% 11,7) eta Bizkaian (% 11,9); eta hirugarren arrazoa, ostera, zirkulazio-sistemako gaixotasunak Araban (% 10,7), arnas aparatuko gaixotasunak Gipuzkoan (10,7%) eta digestio-aparatukoak Bizkaian (% 11,2).

16. taulan aurkezten dira sexuaren arabera sarrien agertzen diren hamabost diagnostikoak, hiru digitutan kodetuta. Diagnostiko horiek, EAEko egoiliarren artean zerotik gorako egonaldia izan duten alden laurdena baino zertxobait gehiago adierazten dute. Gizonezkoen artean batez besteko adinik altuena diagnostiko hauetan bihotz-gutxiegitasunari dagokio (74,6 urte), batez besteko egonaldirik altuenetakoa baitu (8,7 egun), baita bronkitis kronikoari ere (73,4 urte). Emakumezkoen kasuan, izterrezurraren lepoko haustura da (82,6 urte), batez besteko egonaldirik altuena duena (14,9 egun), baita bihotz-gutxiegitasuna ere (79,4 urte).

17. taulan ikus daitezke, EAEko biztanleen artean, sexuaren arabera sarrien ematen diren hamabost prozedura kirurgikoak. Gizonezkoetan sarrien gertatzen den prozedura herniaren konponketa da (8,7%), eta emakumezkoetan "erditzea eragiteko edo erditzean laguntzeko bestelako prozedurak". Gizonezkoetan batez besteko adinik altuena (70,8 urte), "bihotz eta perikardioaren gaineko bestelako operazioak" delakoari dagokio, eta "hestearen ebakidura, zatiketa eta anastomosisia" prozeduraren batez besteko egonaldia altuena da (17,5 egun). Emakumezkoetan batez besteko adinik altuena (69,9 urte), "artikulazio-egituraren operazio konpontzaile eta plastikoak" prozedurari dagokio eta batez besteko egonaldirik altuena 11,2 egunekoa da, "larruazal eta larruazalpeko ehuneko operazioak" izeneko prozedurari dagokiona.

### ***Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak***

Amarako Ospitalea, Donostia Ospitaletegiaren zati da, baina iraupen luzeko gaixotasunen ospitalizazioaz arduratzen delako, atal honetan sartu da.

8.380 alta gertatu dira egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetan, 8.276 EAEko egoiliarrei dagozkie, eta 104 ez-egoiliarrei. Alta horiek, guztira, 162.159 egonaldi-egun eragin dituzte (batez besteko egonaldiko 19,4 egun alta bakoitzeko, sexu bientzat). Alta horiek 6.329 pertsoneri dagozkie (1,3 alta pertsonako eta batez besteko egonaldiko 25,6 egun pertsona bakoitzeko, sexu bientzat). Santa Marina Ospitalea izan da alden % 63,4ren berri eman duena, eta Lezako Ospitalean izan da batez besteko egonaldirik altuena izan duena (18. taula).

Emakumezkoen batez besteko adina gizonezkoena baino altuagoa da (80,2 urte emakumezkoak eta 75,6 urte gizonezkoak). Bizkaia izan da batez besteko adinik altuena izan duen lurraldea (80,6 urte emakumezkoen kasuan eta 76,3 urte gizonezkoen kasuan). Araban bizi direnak batez besteko egonaldirik altuena izan dute: 78,6 egun emakumezkoetan eta 45,2 egun gizonezkoetan (19. taula).

20. taulan, egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetan, EAEn bizi direnen artean sarrien eman diren diagnostikoak ageri dira. Haien maiztasuna kontuan hartuta, nabarmenak dira errehabilitazioa dakarten zainketak emakumezkoetan (% 24,3), eta bronkitis kronikoa gizonezkoetan (% 22,1).

Bukatzeko, 21. taulan ikus daiteke, Osasun Planean sartutako zenbait patologiak direla-eta EAEko ospitale publikoetan (akutuentzako ospitaleak eta egonaldi ertain eta luzekoak) gertatu diren alden banaketa, sexu bakoitza kontuan hartuta.

## ***Ospitale pribatuak***

Hauxe izan zen, guztira, 2007. urtean zentro pribatuetan gertatutako alten kopurua: 71.625. Zentro ezberdinetako alten banaketa 22. taulan aurkezten da, sexu bakoitza kontuan hartuta. Bilboko Vicente San Sebastian klinika eta Donostiako Poliklinika Gipuzkoa izan dira alten kopururik handiena eragin dutenak.

Zerotik gorako egonaldia izan duten altak, zentro horietan alta guztien % 65,5 eragin dute. Zerotik gorako egonaldia izan duten alten kopururik handiena 60tik 74 urtera arteko adin-taldean gertatu da gizonezkoetan eta 30etik 44 urtera artekoan emakumezkoetan. Lurralde historikoaren eta sexuaren arabera banaketa 23. taulan ageri da. Zerotik gorako egonaldia izan duten alten batez besteko egonaldia, sexu bietarako, 6 egunekoa izan da, emakumezkoetan (6,7 egun) gizonezkoetan baino altuagoa izan delarik (5,4 egun).

EAEEn sistema osteomuskularreko gaixotasunak dira sarrien gertatzen direnak (% 17,4), eta hori horrela da hiru lurraldeetan eta bi sexuetan. Ondoren, zirkulazio-sistemako gaixotasunak ageri dira (% 11,6); eta hirugarren, digestio-aparatukoak (% 9,3). Lurralde bakoitzean sexuaren arabera banaketa 24. taulan ikus daiteke.

Egonaldirik gabeko altek, edo eguneko ospitaleko altek, gora egin dute (24.681), eta sarriago gertatzen dira zentroetan, horietan guztira alten kopururik handiena dagoela nabaritzen baita (25. taula).

# O HARRAK

---

2007. urteko Ospitaleko Alten Erregistroko txosten honetan ikus daiteke ospitale publikoetan, akutuentzakoetan zein egonaldi ertain eta luzekoetan, alden kopuruak gora egin duela beste urte batzuekin alderatuta<sup>4</sup>. Akutuentzako ospitaleetan, igoera hori adin-talde guztietan eta bi sexuetan gertatu da, Otik 14 urtera eta 15 urtetik 29 urtera arteko emakumezkoen kasuan izan ezik, antzeko zifrak eta portzentajeari begira baxuagoak dituztelako. 15etik 29 urtera eta 30 urtetik 44 urtera arteko gizonezkoek ere antzeko zifrak dituzte, eta portzentajeari begira baxuagoak dira.

Alten kopurua kontuan hartzen denean gogoratu behar da, batzuetan, prozesu berak alta bat eman dezakeela ospitale bi edo gehiagotan, ez dagoelako paziente bakoitzeko historia bakar bat. Aurten, pertsonako alden kopurua aurreko urtekoa bezalakoa izan da.

Ospitale publikoetan ospitaleratze eta alta horiek eragin dituzten patologiak ez dira funtsean aldatu, bi sexuetan digestio-prozesuek eragindako alden kopurua txikiagoa dela nabaritzen den arren. Horrez gain, arnas aparatuko prozesuek eragindako alden igoera gertatu da sexu bietan, baita zirkulazio-aparatukoek eragindakoena ere gizonezkoetan.

Aurten lehenbiziko aldiz, espezifikoki, Osakidetzako akutuentzako ospitaleetan ez-egoiliarren altak aztertu dira. Sarrien ematen diren diagnostiko nagusiak kontuan hartuta, oro har, ezaugarriak EAEko egoiliarren antzekoak dira. Baina adin-taldeen arabera altak banatzen direnean, ez-egoiliarrek alden kopururik handiena daukate EAEko egoiliarrena baino gazteagoak diren adin-taldeetan, bi sexuetan.

Esan beharra dago, halaber, zentro pribatuek bidalitako alden kopuru osoa iazkoa baino altuagoa dela. Hala ere, kontuan hartu behar da zifra zertxobait azpitik estimatuta egongo dela, aurten bi kliniketako datuak falta direlako; horietako batek, San Antonio Poliklinikak, ez

baititu datuak bidali, 2007. urtean kontsulta-zentro gisa funtzionatzen hasi delako.

Datuen kalitateak, oro har, hobera egin du; baina ikus daiteke garrantzitsuak diren aldagai batzuk (altako diagnostikoa, esaterako) falta direla zenbait zentrotan; eta horrek, atenditutako patologien benetako egoera zein den zehaztasunez ezagutzea galarazten du.

Aurreko txostenetan bezala, Osasun Planean<sup>5</sup> sartuta dauden patologietan EAEn gertatu diren alden kopurua zehaztu da.

# BIBLIOGRAFIA

---

1. Manual Técnico del registro CMBD del alta hospitalaria de Euskadi, versión 2.
2. Clasificación Internacional de Enfermedades 9<sup>a</sup> revisión. Modificación Clínica, 4<sup>a</sup> edición. Ministerio de Sanidad y Consumo.
3. [www.eustat.es/bancopx](http://www.eustat.es/bancopx)
4. Informe del Registro de Altas Hospitalarias 2006. [www.osasun.ejgv.euskadi.net](http://www.osasun.ejgv.euskadi.net)
5. Departamento de Sanidad. Políticas de Salud para Euskadi: Plan de Salud 2002-2010. Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2002.

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**OSASUN SAILA**

Osasun Sailburuordetza  
Osasun Plangintzaeta  
Antolamenduko Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE SANIDAD**

Viceconsejería de Sanidad  
Dirección de Planificación y  
Ordenación Sanitaria

# TAULAK

**1. taula: Bete gabeko alden eta aldagaien kopurua.  
EAE 2007**

Ospitalea	Alten kop.	OTI	Bizilekua	Diag0 Nag0*	JB Pisua <sup>#</sup>	X Diag0***
<b>Santiago</b>	<b>13.049</b>	275	0	0	0	2,8
<b>Txagorritxu</b>	<b>23.331</b>	1.165	0	1	3	3,7
<b>Bidasoa</b>	<b>7.160</b>	469	0	0	0	2,9
<b>Debagoiena</b>	<b>4.987</b>	26	0	0	20	3,0
<b>Donostia</b>	<b>50.491</b>	259	0	52	0	3,9
<b>Zumarraga</b>	<b>8.143</b>	122	0	0	70	2,8
<b>Mendaro</b>	<b>7.296</b>	41	0	0	9	3,8
<b>Gurutzeta</b>	<b>48.393</b>	856	0	0	6	3,5
<b>San Eloy</b>	<b>7.096</b>	156	0	0	0	1,9
<b>Basurtu</b>	<b>35.509</b>	5.651	26	0	48	3,7
<b>Galdakao</b>	<b>20.610</b>	524	0	0	0	3,3
<b>Akutuak guztira</b>	<b>226.065</b>	<b>9.544</b>	<b>26</b>	<b>53</b>	<b>156</b>	<b>3,5</b>
<b>Leza</b>	376	0	0	13	0	3,5
<b>Amara</b>	803	3	0	4	0	7,5
<b>Santa Marina</b>	5.316	83	0	0	0	6,8
<b>Gorliz</b>	1.885	32	0	0	0	4,5
<b>Egonaldi ertain-luzea guztira</b>	<b>8.380</b>	<b>118</b>	<b>0</b>	<b>17</b>	<b>0</b>	<b>6,6</b>
<b>Alta guztiak</b>	<b>234.445</b>	<b>9.662</b>	<b>26</b>	<b>70</b>	<b>156</b>	<b>3,6</b>

Diag0 Nag0\* = Diagnostiko Nagusia.

JB Pisua<sup>#</sup> = Jaioberriaren pisua.

X Diag0\*\*\* = Alta bakoitzeko egindako diagnostikoen batez bestekoa.

Iturria: Ospitaleko alden erregistroa (GODM). Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza. Osasun Saila.



**2. taula: Alten kopurua, zentroa eta sexua kontuan hartuta.  
EAE 2007**

<b>Akutuentzako ospitaleak</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Emakumeak</b>	<b>Guztira</b>
<b>Santiago</b>	7.124	5.925	<b>13.049</b>
<b>Txagorritxu</b>	10.892	12.439	<b>23.331</b>
<b>Bidasoa</b>	3.672	3.488	<b>7.160</b>
<b>Debagoiena</b>	2.260	2.727	<b>4.987</b>
<b>Donostia</b>	23.641	26.850	<b>50.491</b>
<b>Zumarraga</b>	3.708	4.435	<b>8.143</b>
<b>Mendaro</b>	3.306	3.990	<b>7.296</b>
<b>Gurutzeta</b>	21.819	26.574	<b>48.393</b>
<b>San Eloy</b>	3.645	3.451	<b>7.096</b>
<b>Basurtu</b>	17.299	18.210	<b>35.509</b>
<b>Galdakao</b>	11.150	9.460	<b>20.610</b>
<b>Akutuak guztira</b>	<b>108.516</b>	<b>117.549</b>	<b>226.065</b>
<b>Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Emakumeak</b>	<b>Guztira</b>
<b>Leza</b>	235	141	<b>376</b>
<b>Amara</b>	442	361	<b>803</b>
<b>Santa Marina</b>	2.805	2.511	<b>5.316</b>
<b>Gorliz</b>	832	1.053	<b>1.885</b>
<b>Egonaldi ertain-luzeak guztira</b>	<b>4.314</b>	<b>4.066</b>	<b>8.380</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>112.830</b>	<b>121.615</b>	<b>234.445</b>

Iturria: Ospitaleko alden erregistroa (GODM). Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza. Osasun Saila.

**3. taula: Altak guztira, Osakidetzako akutuentzako ospitaleetan, lurralde historikoa eta sexua kontuan hartuta.  
EAEn bizi direnak 2007**

	Guztira				Gizonezkoak				Emakumezkoak			
	Alten kop.	Altak / pertsona	Batez besteko adina	Tasa*	Alten kop.	Altak / pertsona	Batez besteko adina	Tasa*	Alten kop.	Altak / pertsona	Batez besteko adina	Tasa*
<b>Araba</b>	37.254	1,3	55,5	12.286,9	18.237	1,4	56,9	12.077,5	19.017	1,3	54,2	12.494,7
<b>Gipuzkoa</b>	76.200	1,3	56,2	11.186,1	35.764	1,4	57,8	10.717,4	40.436	1,3	54,8	11.636,3
<b>Bizkaia</b>	107.789	1,3	55,8	9.419,7	51.900	1,3	57,1	9.354,7	55.889	1,2	54,6	9.480,8
<b>EAE</b>	<b>221.243</b>	<b>1,3</b>	<b>55,9</b>	<b>10.393,8</b>	<b>105.901</b>	<b>1,3</b>	<b>57,3</b>	<b>10.188,7</b>	<b>115.342</b>	<b>1,2</b>	<b>54,6</b>	<b>10.589,6</b>

\*Tasa Gordina 100.000 biztanleko.

Iturria: Ospitaleko alten erregistroa (GODM). Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza. Osasun Saila.

**4. taula: Altak guztira, Osakidetzako akutuentzako ospitaleetan adina, lurralde historikoa eta sexua kontuan hartuta. EAEn bizi direnak 2007**

Adina	EAE				Araba				Gipuzkoa				Bizkaia			
	Gizonak		Emakumeak		Gizonak		Emakumeak		Gizonak		Emakumeak		Gizonak		Emakumeak	
	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%
<b>0-14</b>	7.929	7,5	5.609	4,9	1.387	7,6	1.082	5,7	2.702	7,6	1.882	4,7	3.840	7,4	2.645	4,7
<b>15-29</b>	6.338	6,0	10.679	9,3	1.207	6,6	1.819	9,6	2.007	5,6	3.764	9,3	3.124	6,0	5.096	9,1
<b>30-44</b>	12.298	11,6	28.319	24,6	2.207	12,1	4.530	23,8	4.089	11,4	10.248	25,3	6.002	11,6	13.541	24,2
<b>45-59</b>	20.350	19,2	15.834	13,7	3.432	18,8	2.775	14,6	6.591	18,4	5.138	12,7	10.327	19,9	7.921	14,2
<b>60-74</b>	31.011	29,3	23.155	20,1	5.242	28,7	3.621	19,0	10.495	29,3	7.933	19,6	15.274	29,4	11.601	20,8
<b>75-89</b>	26.516	25,0	28.369	24,6	4.437	24,3	4.459	23,4	9.316	26,0	10.147	25,1	12.763	24,6	13.763	24,6
<b>&gt;90</b>	1.459	1,4	3.377	2,9	325	1,8	731	3,8	564	1,6	1.324	3,3	570	1,1	1.322	2,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>105.901</b>	<b>100</b>	<b>115.342</b>	<b>100</b>	<b>18.237</b>	<b>100</b>	<b>19.017</b>	<b>100</b>	<b>35.764</b>	<b>100</b>	<b>40.436</b>	<b>100</b>	<b>51.900</b>	<b>100</b>	<b>55.889</b>	<b>100</b>

Iturria: Ospitaleko alden erregistroa (GODM). Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza. Osasun Saila.

5. taula: Altak guztira, Osakidetzako akutuentzako ospitaleetan diagnostiko-taldea, lurralde historikoa eta sexua kontuan hartuta.

EAEn bizi direnak 2007

CIE9-MC	Diagnostiko Taldea	EAE				Araba				Gipuzkoa				Bizkaia			
		Gizonak		Emakumeak		Gizonak		Emakumeak		Gizonak		Emakumeak		Gizonak		Emakumeak	
		K	%	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%	K	%
001-139	Infekziosoak eta parasitarioak	1.905	1,8	1.180	1,0	349	1,9	165	0,9	680	1,9	445	1,1	876	1,7	570	1,0
140-239	Tumoreak	10.799	10,2	9.225	8,0	1.756	9,6	1.536	8,1	3.347	9,4	2.738	6,8	5.696	11,0	4.951	8,9
240-279	Endokrino metabolikoak	1.365	1,3	1.715	1,5	218	1,2	338	1,8	493	1,4	591	1,5	654	1,3	786	1,4
280-289	Odola eta organo hematopoietikoa	1.116	1,1	1.170	1,0	214	1,2	256	1,3	437	1,2	404	1,0	465	0,9	510	0,9
290-319	Trastorno mentala	2.715	2,6	2.173	1,9	421	2,3	379	2,0	869	2,4	638	1,6	1.425	2,7	1.156	2,1
320-389	Nerbio-sistema eta zentzumen-organok	10.407	9,8	14.074	12,2	1.563	8,6	2.009	10,6	3.701	10,3	4.974	12,3	5.143	9,9	7.091	12,7
390-459	Zirkulazio-sistema	16.000	15,1	11.317	9,8	2.433	13,3	1.833	9,6	5.135	14,4	3.953	9,8	8.432	16,2	5.531	9,9
460-519	Arnas aparatua	14.369	13,6	9.353	8,1	2.776	15,2	1.798	9,5	5.280	14,8	3.703	9,2	6.313	12,2	3.852	6,9
520-579	Digestio-aparatua	15.221	14,4	10.793	9,4	2.699	14,8	1.807	9,5	4.809	13,4	3.580	8,9	7.713	14,9	5.406	9,7
580-629	Aparatu geniturarioa	5.356	5,1	7.723	6,7	1.169	6,4	1.304	6,9	1.689	4,7	2.458	6,1	2.498	4,8	3.961	7,1
630-676	Haurdunaldi, erditze eta erditze ondokoa	0	0,0	22.269	19,3	0	0,0	3.361	17,7	0	0,0	8.461	20,9	0	0,0	10.447	18,7
680-709	Larruzala eta larruzalpeko ehuna	1.534	1,4	1.077	0,9	222	1,2	179	0,9	618	1,7	417	1,0	694	1,3	481	0,9
710-739	Sistema osteomuskularra	6.119	5,8	7.187	6,2	934	5,1	1.142	6,0	2.331	6,5	2.654	6,6	2.854	5,5	3.391	6,1
740-759	Sortzetiko anomaliak	969	0,9	611	0,5	165	0,9	95	0,5	282	0,8	182	0,5	522	1,0	334	0,6
760-779	Jaiotza-inguruko patologia	1.061	1,0	890	0,8	178	1,0	168	0,9	432	1,2	359	0,9	451	0,9	363	0,6
780-799	Gaizki definitutako zeinu eta sintomak	6.184	5,8	4.945	4,3	1.299	7,1	984	5,2	2.075	5,8	1.787	4,4	2.810	5,4	2.174	3,9
800-999	Lesioak eta pozoidurak	8.026	7,6	7.292	6,3	1.387	7,6	1.278	6,7	2.560	7,2	2.147	5,3	4.079	7,9	3.867	6,9
V01-V82	V kodea	2.725	2,6	2.326	2,0	453	2,5	385	2,0	998	2,8	923	2,3	1.274	2,5	1.018	1,8
	Kodetu gabe	30	0,0	22	0,0	1	0,0	0	0,0	28	0,1	22	0,1	1	0,0	0	0,0
	<b>GUZTIRA</b>	<b>105.901</b>	<b>100</b>	<b>115.342</b>	<b>100</b>	<b>18.237</b>	<b>100</b>	<b>19.017</b>	<b>100</b>	<b>35.764</b>	<b>100</b>	<b>40.436</b>	<b>100</b>	<b>51.900</b>	<b>100</b>	<b>55.889</b>	<b>100</b>

6. taula: Altak guztira, Osakidetzako akutuentzako ospitaleetan sarrien ematen diren diagnostiko, adin eta sexuaren arabera. EAEn bizi direnak 2007

Gizonezkoak					Emakumezkoak						
Adina	CIE9-MC	Arrazoia	K	%*	Guztira	Adina	CIE9-MC	Arrazoia	K	%	Guztira
0-14	474	Amigdala eta adenoideen gaixotasun kronikoa	704	8,88	7.929	0-14	474	Amigdala eta adenoideen gaixotasun kronikoa	504	8,99	5.609
	540	Apendizitis akutua	326	4,11			765	Haurd. labor/jaiotza-pisu eskasarekin zer. trastor.	279	4,97	
	752	Org. genitalen anomalia organikoak	316	3,99			466	Bronkitis eta bronkiolitis akutua	239	4,26	
	765	Haurd. labor/jaiotza-pisu eskasarekin zer. trastor.	303	3,82			540	Apendizitis akutua	232	4,14	
	466	Bronkitis eta bronkiolitis akutua	270	3,41			486	Pneumonia, zehaztu gabeko organismoa	163	2,91	
		ALTAK GUZTIRA ADIN-TALDE ETA SEXURAKO							ALTAK GUZTIRA ADIN-TALDE ETA SEXURAKO		
15-29	540	Apendizitis akutua	382	6,03	6.338	15-29	650	Erditzea guztiz normala den kasuan	839	7,86	10.679
	685	Kiste pilonidala	249	3,93			645	Kronologikoki aurreratua den haurdunaldia	583	5,46	
	470	Sudur-trenkada desbideratua	189	2,98			664	Perineo eta bulbako trauma erditzean zehar	532	4,98	
	717	Belaun barneko trastornoa	177	2,79			656	Amarengan eragina duten beste araz. fetal eta plaz.	439	4,11	
	295	Trastorno eskizofrenikoak	166	2,62			658	Barrunbe eta mintz amniotikoen best. alter.	374	3,50	
		ALTAK GUZTIRA ADIN-TALDE ETA SEXURAKO							ALTAK GUZTIRA ADIN-TALDE ETA SEXURAKO		
30-44	717	Belaun barneko trastornoa	346	2,81	12.299	30-44	650	Erditzea guztiz normala den kasuan	1.861	6,57	28.318
	295	Trastorno eskizofrenikoak	317	2,58			664	Perineo eta bulbako trauma erditzean zehar	1.606	5,67	
	540	Apendizitis akutua	286	2,33			645	Kronologikoki aurreratua den haurdunaldia	1.457	5,15	
	550	Iztai-etena	277	2,25			656	Amarengan eragina duten best. araz. fetal eta plaz.	1.327	4,69	
	470	Sudur-trenkada desbideratua	237	1,93			658	Barrunbe eta mintz amniotikoen best. alter.	1.161	4,10	
		ALTAK GUZTIRA ADIN-TALDE ETA SEXURAKO							ALTAK GUZTIRA ADIN-TALDE ETA SEXURAKO		
45-59	550	Iztai-etena	696	3,42	20.350	45-59	354	Goiko gorp. adarreko mononeuritis eta mononeuritis anizkoitza	529	3,34	15.834
	414	Bihotzeko gaixotasun iskemiko kronikoen best. mot.	512	2,52			174	Emakumezkoaren bularreko neoplasia gaiztoa	489	3,09	
	717	Belaun barneko trastornoa	485	2,38			574	Kolelitiasia	459	2,90	
	366	Katarata	481	2,36			218	Umetokiko leiomioma	432	2,73	
	786	Arnas eta bularraldeko sintomak	468	2,30			366	Katarata	404	2,55	
		ALTAK GUZTIRA ADIN-TALDE ETA SEXURAKO							ALTAK GUZTIRA ADIN-TALDE ETA SEXURAKO		
60-74	366	Katarata	2.547	8,21	31.011	60-74	366	Katarata	3.290	14,21	23.155
	491	Bronkitis kronikoa	1.013	3,27			715	Osteoartrosia / antzeko gaix.	819	3,54	
	550	Iztai-etena	953	3,07			574	Kolelitiasia	596	2,57	
	414	Bihotzeko gaixotasun iskemiko kronikoen best. mot.	770	2,48			618	Prolapso genitala	516	2,23	
	427	Bihotzeko disritmiak	683	2,20			735	Oinaren behatz lodiaren deformazio hartua	470	2,03	
		ALTAK GUZTIRA ADIN-TALDE ETA SEXURAKO							ALTAK GUZTIRA ADIN-TALDE ETA SEXURAKO		
